

Fatxadea eta teilatua konponduko deustie "Etxe mudejarrari"

13. orrialdea

Arlonagusia barrizatuta

Lemoako Arlonagusia futbol zelai barrizatuta inauguratu eben urri lehenengoaren 28an. Presidenteai omenalditxoak, Durundibarri jantza taldearen jantzak eta Lemoako futbol taldeetako jokalarizandakoen partiduak osatu eben ekitaldia. Saioa Elejabarrieta Lemoako alkatea eta Aitor Erauzkin zinegotzia bertan egon ziran orogarriak bananduten. **11. orrialdea**



Sisetan mendi martxea eta BTT martxea Diman hilaren 12an

10. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

193

2013ko urri bigarrenaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Ondo zaindutako ondareari bisitak

Mendi martxak, eleizak, Euskal Jaia, karobia, errotea... Arratiako ondarea ezagutzeko aukerea dago gurean udagoienean.

Atzen urteotan, BFaren Ondarearen Europako Jardunaldien katalagoan sartu eta ezagunak egin dira Bizkaiko osoan hainbat mendi martxa eta ondarea ezagutzeko ekimen. "Atzokoa biharko" lelo hartuta, era askotako esku-hartzea izandako ondarea erakutsiko dabe erakundeak zein herrietako alkarteak.

Areatzako kaleetatik bisita gidatuak urribildua ezagutzeko hilaren 12 eta 13an; Areatzako Euskal

Jaia, hilaren 5ean; Igorreko Andra Mari Eleizea ezagutzeko bisita gidatuak, 26an; Ubide-Zeanuri Larreen Mankomunitatearen Zeharkaldia eta ondorengo zorrak kentzeako bilkurea, 26an hau be; San Justoko karobia eta Olabari errotara bisitaldia hilaren 5ean; Zeanuriko kofradietatik ibilbidea, hilaren 12an eta Zeanuriko Eleizondo monumentu multzoari bisita, 19an, dagoz Ondarearen Jardunaldietan. **12. orrialdea**



Areatzan Euskal Jaia izango da urri bigarrenaren 5ean.

AREATZA

Erreka ondoko lanak hasi dira

Uriolak prebenidutako erreka ondoko lanak hasi dira. Proiektua aspaldikoa izanik, atzeratu egin da Arratia ibaia bisoi europar edo ipurtatsaren habitata dalako. Lanok eztabaidea sortu dabe herrian. Batzuek errekearen baztarrak aldatu barik mantentzen gura dabez, beste batzuek, barriz, proiektua herriarentzat ona dala uste dabe. Bisoiaren habitata ez kaltetzeko, Foru Aldundia gidalerroak jarraituz egingo dirala lanak dino Josu Basozabal Areatzako alkateak. **7. orrialdea**



ARRATIA

Joseba Rodriguezen "Oroimenak sortzen" argazkia irabazle

Larogetabat argazkik hartu dabe parte aurtengo Argazki Lehiaketan. Epaimahaiak, Joseba Rodriguezen "Oroimenak sortzen" argazkiari emon deutso saria. Bigarren postuan, Aitor Arnaizen "Britania5" eta Miren Begoña Idigorasen "Pechon-Cantabria" geratu dira bardinduta. **8. eta 9. orrialdeak**

A SESOREAK
basolo Ewaldi
FINKEN ADMINISTRATZAILEA
Abokatua

620.57.86.04
asierabasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

%15eko DESKONTUA
LEHENENGO URTEKO KUOTAN

BEDIA

Beharra bertan geratu daiten borondate politikoa eskatzen dabe Incoesa enpresako beharginak

Erakundeai inplikazioa eta alderdian borondate politikoa eskatzen deutseez Incoesako beharginak beharra Bedian geratu daiten. Extremadurara eroan gura dau beharra enpresek eta Bediako planteazarratu. Bizkaiko Foru Aldundiak espedientea zabaldu deutso Incoesari ea deslokalizazioa egiten dabilen ikertzeko. **5. orrialdea**



IGITIE

SASOIAN SASOIKOA: PISTO ERREZETEA

Sarritan entzun dogu jaten dogu-na garala. Beraz, gure dietan hartzean doguzan jakien kalidadea sano inportantea dala argi dago. Agora eroaten doguna baloretako hainbat aspektu hartu behar dira kontuan: elikagaien jatorria, konposatuak, garbitasuna, eta abar luzea.

Gaurkoan, sasoiko produktuak izateari emongo deusagu garran-

tzia. Oso inportantea da elikadura osasuntsu bat eroateko orduan, momentuan ortuetan aurkitzen diran jakiak hartzea. Hori dala eta, garai honetan daukaguzan barazkiakaz prestatu daikagun pistoa egiten ikasiko dogu.

Osagaiak: kipulea, piper berdea, kalabazina, tomatea, olioa eta gatza.

Barazkiak zuritu eta txikitzen

dira. Zartagin batean olio apur bat botaten da eta sutan berotu ostean kipulea bota, apurka-apurka sukaldatuz. Ondoren, piper berdea, eta su bajaran sukaldatzen jarraitu. Segiduan kalabazina gehitu. Barazki guztiak eginda dagozanean tomatea eta gatza gainerratu. Dana alkarregaz sukaldatzen da 10 minutuz gitxi gorabehera. Eta prest daukagu jateko. Goar-nizino moduan jan daiteke edota arrautza irabiatu batzuk gehituz.

On egin!



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri lehen. 30etik urri biga. 6ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atubxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 7tik 13ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 14tik 20ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Irati Urien.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Pablo Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Iraitx Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Alderdiak
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ZEURE BERBEA

Bediako herriari

Bedian, Ibarra auzoan errotonda bat eregi dabe. Obrak hasi orduko arkitektoagaz batu nintzan proiektua zelari burutuko zan jakinminez. Hasikeratik ikusten genduan auzoan asko sartuten zala errotondea eta nahiz eta beste alderantza lur sail urbanizatu bakoia egon, Diputazioak ez eban aintzat hartu gure eskaria.

Auzoko biztanleok firma bilketea egin genduan alternatiba bat eskeiniz eta errotondea beste alderantza hiru-lau metro besterik ez desplazetea eskatuz. Eskaera hau udeletxean aurkeztu genduan. Alegazioak be idatzi genduzan eta Diputazioari bialdu; Bediako alkateagaz, Aitor Sorriketaz bildu, Diputazioari bildu... baina gure ahaleginak alperrekoak izan dira. Diputazioa arrazoia genduala esatera be heldu zan baina proiektua eginda egoanez, euren lana txarto eginda dagoala onartzea lez izango litzateke geureari oneretia emotea.

Aspaldi etxoten genduan errotonda hau eta atzenean egin dabe baina etxeetaraino sartutea ez da espero gendua.

Ibilgailuen segurtasuna eta trafikorearen baretzearen atxakiagaz ederra sartu deuskue, izan be auzotik errotondarako urtekeran lehen baino bisibildade gitxiago

daukagu eta lehenagotik egon dan kurbea (hainbat istripu, hildako eta guzti egon dira) ez dira kentzeako gai izan.

Jakin dagiala herriak, Ibarra ez dagoala konforme egindako obreagaz eta nire haserrea eta egoneza adierazo gura deutset Diputazioari eta Aitor Sorriketari, bere ahalegin falteak egoera honetara eroan gaituala uste dot eta.

**AINARA OLAZABALAGA LEIZA
IBARRAKO AUZOKIDEA**

Eskerrik asko danori

Eskerrik asko Igorreko Euskera Egunean Igorre Kantari Inbiu 2013an parte hartu zenduen guztioi!

Futbol taldea, Rugby, Esku pelota, Arantzarte, Musika eskola eta Astrapalea, Motxogan, Motor taldea eta Intxaurbizkar, Ziklistak, Abesbatza, Noka, AME eta Beinke, Gazte Asanbladea, Aek, Guraso Elkartea eta Zaztaparrak, Igeriketa Taldea, Jubiladuak, Igorre bizirik eta Axular Kultur Alkartari eskerrik asko.

IGORREKO EUSKERA PLANA

19an Lemoara

Gure herri honek, historian zehar hainbat aldiz erakutsi izan dau internazionalismoagazko atxikimendua, *Elkartasuna herrien arteko samurtasuna*, lelo bat baino zerbaist gehiago bilakatzeraino. Urteetan zehar, besteak beste, Ertamerika zein Kubako iraultzak, Palestinar herriaren burruka duina, Irlanda zein Maputkeen askatasun nahiak babestu eta azken urteetan barriz, Bolivarren ezpatak kontinente osoan eragindako iraultza-zen sutan gozatu gara.

Zorionez baina, ez gara bakarrik munduan oinarri iraultzaile honek jaso eta bere egiten. Asko dira gure burruka aspalditxotik gaur arte babestu dituen gainerako herrietako kideak. Hain zuzen, hizkuntza arrotz bat berba egin arren, nahiz milaka kilometrotara bizi edo kultura desbardinak izan, jabetu dira Lluís Lachen abesti harek inoan moduan, zuek hemendik tira ezker eta guk hemendik, errezago botako dogula herriak eta personak zapaltzen gaituan sistema hau. Jasotako alkartasun honen adierazle da urteak joan eta urteak etorri EHLek (Euskal Herriaren Lagunak) egiten dabiz lan eskergea. Europa zein Latinoamerikako 20 uritan baino gehiagotan dagoz EHLak, Euskal Herri aske eta sozialista baten aldeko lanean jasaten doguzan injustizia guztiak salatzen. Orain dala gitxi, esaterako, Baltasar Garzon epaileari, Buenos Airesen *escrache* baten bidez, tortureagaz daukan ardura ahaztezina arpegitu eutsien.

EHLetako hainbat lagun Arratian izango doguz urri bigarrenaren 19an, Lemoan hain zuzen, urtero hareekaz antolatuten doguzan topaketen baitan. Beraz, jaso egizue gure konbidapenik beroena, zapatuko kalejira, ekitaldi, afari eta osteko festan parte hartzeako. Emon dagiegun merezidu daben ondo etorria!

ASKAPENA

ERETXIA



MAITE ARTABE

Areatzako Bekokaleko auzotarra

Begira nago, begira...

Begi gorri amaituko jonat begiratutearen begiratu-teaz. Biziki disfrutau jonat beti begiratuteko ekintzeagaz.

Nonon irakurri najonan fotografia errealdade definitibotzat bajaukaguna be, ez dala holan, kamareak modu geometrikoan ikusten daualako eta gizakiak geometrikoan ikusteaz gainera psikologikoan be ikusten dauala.

Beharbada horregaitik gustetan jatanan hainbeste pintorea; bertan begirada psikologiko hori sano dalako garrantzitsua. Norberak igarten jona erakusketa bate-tik urten ostean ingurua atentzino handiagaz begiratuten dauala. Bat-batean etxe aurreko betiko arboleari mila zehaztasun gehi-go ikusten jeutsazanat.

Igoal horixe dona arte bisualen zereginetako bat: begiraturera behartu, atenzinoa horretan finkatuarazo, plazer hutsagaitik, beste barik.

Askok aurrean jeukanetik begiradea paseau egiten jona eta ez bajaguna eragozpenik, aurrera. Baina begiradutea ekintza positiboa dona. Gurata ekin behar jakona. Holan gero eta gehiago ikusten dona eta norbere begiradea lortu; nagusi dan ikuskera ofizial monolitikoari men egiten ez deutzan begiradea eta autoeraikuntzan lagunduko deuskuna. Inguru sozialari be beste modu baten begiratuten ikasiko joguna holan, zeinda koadrotik urtenda, kanpoko aldetik koadroari begiratuko bageunskio lez. Azken baten hori begiradaori norbera dona.

Izan be pintetea ez dona hain gatxa; begiradutea dona benetan konplikaua. Menchu Gal-en erakusketan konturatu nintzonan gainera, norbere paisaje afektiboa pintetean nabari izaten dala begirada psikologiko hori ondoen: bereziki jariena emozinoa bere marinai, itsasoagaz izan jonan loturearen seinale. Bere marinak gure Kantauri itsasoa hobeto ikusiarazo jeustienan. Ordutik koloretsuago, biziago barruntetan jonat.

Halan guretzako be gatx izango leitikona Arratia ikusgai huts suertetea, emozinoakaz endredautu jeukuna-ta; gure paisaje afektiboa dona. Seguruenik horregaitik ilunduten jatana barrunbea gure etxe ondoko errekearen obra proiektua ikustean; ia egunero begiratu jeutsienat etxe osteko erreka eta ondoko haltzari Areatzara etorri nintzonanetik. "Haltzak ez du bihotzik" diñona kopla zaharrak, ba, gure horrek bihotz faltan odola jeukana eta gure errekeak abotsa.

Inguru hori eraldatuten dabenean nire begien kurrikulum afektiboaren zati bat kolokan jarriko dona. Ekologismo afektiboa be aplikau beharko llekiena gure arkitekto eta paisajistak, behar ez dan sufrimenturik ekidin aldera.

Gure paisajearen inguruan arakatu guran, egunotan denporapasa ederra aurkitu jonat: Arratia pintorearen batzuen koadroetan aurkitu eta gero neure begiradeagaz konparatutearena.

Besteak beste, oso gustoko izan jonat Arteta. Zelako begiradea Eva arratiarrarena! Eskuan daroan sagarrarena baino askoz adierazkorragoa. Aizan, bestalde, konturatu haz inoz? Artetaren koadroetan, inork ez jaroana barruko erroparik, tela artetik gorputza bete-betea, traba barik marketan dona ba-ta!

Enfin, begiradutea plazer erotiko-sexuala be badona, ezta?

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Uger egin



Uretan sartu eta, ito barik, ur gainean egon eta aurrera egin, hori da hain zuzen be, uger egin berbeak esan gura dauana (ugér ein, agoskatuta). Batuaz, igeri egin esaten da. Animaliak inork irakatsi barik, hau da berez, badakie uger egiten; personeak barriz, ikasten ez badau, ez. Horrexegaitik, onena izaten da umetatik hastea uger egiten; gainera, osasunerako be sano egokia dala dinoskue adituak.

BATZ 50 urte
BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)
IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enbata
Batzen gaitu

MONDRAGON 2013

LUMATUTEN**IGOR ESTANKONA****Haritschelharren kerizpea falta**

Jean Haritschelharren heriotzearen barri euki eta biharamunean Jean Louis Davantek Euskadi Irratiari esan eutsan garbi: Baigorriko haritza joan jaku, abizena zuberotik ekarrena, Nafarra izatez, frantsesa hiritargoz, euskalduna ezer baino lehen.

Jean Haritschelhar Duhalde Baigorri jaio zan 1923ko maiatzaren 13an. Lehenengo ikasketak bertako eskola publikoan egin ebazan. Baionan, Mont de Marsanen eta Tolosan jarraitu ebazan ikasketak. Letretan doktore izan zan Ecole Normale Supérieure de Saint-Cloud eta Sorbonne-Parisen, Pierre Topet Etxahunen inguruko tesi banagaz. Etxahun aukeratu eban. Tesirako gaiak berak erakusten dau hizkuntza herrian errotua gauza ebala, baina Lizardiren ametsa ahaztu barik: hizkuntza larrekoak izan behar eban no-

ranahikoa, jakitearen hegoak igoa.

Bilbon ezagutu neban Haritschelhar, sorbaldan taup-taup emon eustan gizon handikoteak. Ona eta errespetagarria eretxi neutsan: bildur apur bat emon eustan. Haritz handi haren kerizpean sendotu zan Euskaltzaindia, eta gure belaunaldikoontzat bera izango da "euskaltzain burua", inogaz ezkondu ez eta danak errespetatzen eben figura bakarrenetarikoa. Gatxa da aituten hegoaldekoontzat: herriko alkate adskripzino politikorik bakoa, eztabaida filosofikoetan tratatzen ez zana, gerra banderizoetan sartu ez zana, utopikoa. "Euskaldundu behar dira Euskalerrian bizi diren guztiak. Utopia? beharbada, baina emeki-emeki... Nik Euskalerrian pentsatzen dut 3 hizkuntzen jabe izan behar dugula, eta horretan lehena euskara, gero bigarrena, adosean usten ditut, espainola edo frantsesa". Orden horretan. Hizkuntzen "bardintasanaren" teologoak entzungo al zaitue! Euskereak izan behar dau Euskal Herrietako hizkuntza ofizial printzipala.

Bilbon ezagutu nebala esan dot, sorbaldan taup-taup emon eustan. Sentidu neban jarraitu egin behar geuntsala.

ZERTZEAN**ALVARO RABELLI**

Goizeko zortziak dira eta ordu horretako freskureak izaren artean burua ataretan dauan erpuruaren kolorea mudauarazo dau, ia ubel bihurtzeraino. Ez da, halanda be, Joxeri izoztu jakon gorputz atal bakarra. Izan be, goizeko zortzietan be eguneroko lanaldia hasi barri dauan funtzionarioak presa handi samar euki dau Joxeri telefonoz deuteko. Hiru urte langabezian emon ondoren benetan gogorra da inoren deia ordu goiztiar horretan jasotea. Baina Joxeri lan eskeintza egin deusie ez daki nongo udal-txe batetik ez daki zein administrari lanpostu beteteko. Joxek, ondino erdi lokartuta, baietz esateko beste norarik ez dau euki; hau da, lan eskeintza onartzen dauala esan dau. Alabaina, bihar bertan hasi behar daualako notiziak beste oineko

Leku aldaketa

erpuruaren kolorea be aldatuarazo deutso, baltzera oraingoan. Bertan pisuren bat alokatzea onena izango dala egin dau ideia. Egun bakarra dauka pisua aurkitzeko, beraz, ezin dau denporea galdu. Internetera jo eta orrialdeetan murgilduta ez dau bere gustuko ezer topau, ganera dana lar garesti dago. Haraino joan behar dau ea bertatik bertara zer edo zer aurkitzen dauan. Lagun bateri laguntza eskatu, biak bertara hurbildu eta okindegiz okindegi alokaeren iragarkien desfilea hasi dabe. Ezin esan aukera askorik dagoanik, bizpahiru eskeintza baino ez. Hartu daben lehenengora deitu eta hitzordua egin dabe handik ordu gitxirako. Joxeri pisua erakutsi deusie, beheko solairu bat, txikerra, zaharra eta umela, eta batez be garestia. Baina Joxeren preseak baietz esan dau; hau da, pisua alokatuko dauala esan dau. Une horretan bertan jaubeari giltzea eskatu deutso, pisua zelan dagoan ez deutso ardura, bihar bertan hasi behar daualako. Eta Joxeren presearehala lanean hasi da, zoro pa-

rean. Oheko arropea lehenengoz, burkoa, nordikoa eta izarak, herri osoan zehar non erosiko. Telebista, txiki bat aukeran, ze telebistarik gabe gauak oso luzeak izango dira. Etxea garbitzeko garbikariak eta tresnak – Joer! Komuneko papera be bai! Eta zer arraioa jango joat, bihar gosaltzeko ere ez joat ezer. Eta non jan etorri jako bat-batean akordura, ez daukalako ez platerik, ez lapikorik, ez eta sardeska eta horrelangorik be – Txinora joango nok! Bertan baxera eta ontzi merkeak topatuko joadaz – Kabenzotz! Olioa erostea ahiztu jat, eta hortzetako pastea be bai! Holan, Joxeren preseak ez dau egun osoan atsedetik hartu harik eta gauza gehienak pisu barrira eroan arte. Ondino gauza asko falta jakoz eta bihar be segidu beharko dau, baina bihar lehenengo lan eguna da eta Joxeren artetak ez deutso lo egiten ixten, ohe zaharren somier apurtuak bez. Goizeko sei eta erdietan telefonoko iratzargailuak jo dau eta Joxeren preseala lanera joan da, artega eta guzti, baina Joxe ohean geratu egin da, lo.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Herriko auzune guztietan santu bat dala edo beste bat dala, urtean behin auzoak batzeako eta alkarregaz ondo pasetako aukerea egoten da. Bediako Jauregi auzoak, gaur egun ezetuten dogun moduan behinik behin, XX. mendearen erdialdean sortu zanez, ez dau izan ez ermitarik, ez santurik, ez jai propiorik. Igaz arte, sikan. Izan be, auzokoak pentsau genduan, santurik ez izan arren, bertakoak alkartuteko egun bat behar genduala. Pentsau eta antolatu be egin genduan igazko eguna eta joan dan hilaren 28an, Bedian bigarrenez Jauregi eguna ospatu dogu. Goiz-goizetik hasita, txupinazoa hamaiketan izan zan, eta hortik aurrera, jantzak, Ugel Txapelketea, umeentzako tailerrak eta mahai inguruan danok batera bazkaiteko paella itzela. Arrastian Mus eta Briska Txapelketak ezeze, olinpiadak egon ziran. Txokolateagaz batera barre egiteko aukerea izan genduan gauerdira arte luzatu zan gaubelan. Datorren urtekoa be pentsetan hasi gara. Konbidauta zagozie!

Bediako Jauregiko auzokoak



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorosticl.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika
Implanteak
Estetika
Marina Uriagaitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Biokala
T. 94 631 50 39
Kalegata Zirkulara 101
R.F.S. 21/06

Ametzola Landetxea
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

BEDIA

Deslokalizazioa saihestu gura dabe Incoesako beharginak

Bizkaiko Foru Aldundiak espedientea zabaldu deutso Incoesari, deslokalizazioa egiten ete dabilen ikertzeko.

Erredakzioa

Izan be, deslokalizazio kasuetan, 7/2007 Foru Arauaren arabera, enpresak deslokalizetan diranean Foru Sektore Publikoak berreskuratu ditu emondako laguntzak. Deslokalizazioa egiten dabilela frogatuko balitz, Incoesak azken urteotan jasotako 190.000 euroko dirulaguntza itzuli egin beharko leuskio Aldundiari.

Beharginak deslokalizazioa probatu daitela gura dabe, baina euren helburua ez da enpresek diru-laguntza horreek itzuli daiazala, Bediako enpresea ez zarratutea baino.

"BFaren diru laguntzaz gainera, Eusko Jaurlaritzak be 600.000 eurotik gora emon deutso Incoesari. Baina guk gura doguna da lana Bedian geratzea. Deslokalizazioa ez gertatzea eta horretarako borondate politikoa behar da" dino Pedro Mendok Incoesako beharginak. Beharginen ustez, Incoesan ez da lanik falta eta etekinak emon emoten ditu Bediako plantak, baina enpresek soldata askoz txikiagoak pagau

gura ditu eta horregaitik eroan gura dau hemengo produktzioa Extremadurara.

Ertzaintza Incoesan

Urri lehenengoaren 17an, enpresek Bediako lantegitik materiala ateratu eban Ertzaintzaren laguntzaz. Materiala ateratzea oztopatzen egozan beharginak kolpatu egin zituen Ertzaintzak eta zazpi behargin inputau, EH Bilduk 19an prensaurrean jakinaraztakoaren arabera.

"Enpresea konkurso-legean sartu zan eta epaileak amaitutako makinak eta konponenteak eroateko baimena emon eban. Administratzaileak bere egunean esan euskun bera adi egongo zala, informauta, eta gu be jakinaren gainean egongo ginala. Ez da holan izan. Ustekabean agertu ziran urri lehenaren 17an, goizeko zazpiretan gitxi gorabehera, Ertzaintzaren patrulla batzuek eta sartzean hasi ziran. Extremaduran osotuten dabizen makina baterako konponente bila etorri ziran. Furgoneta batzuk bete zituen eta betetakoan eskolten zain egon

ziran. "Baltzak" ezelango azalpen barik, beharginak eraso eta jo egin zituen motibo barik".

Behargin batzuk Galdakaoko Ospitalera eroan behar izan zituen eta Durangoko Auzitegiko baimenagaz edozein momentutan eta edozein modutan agertu daitezkezala dino Mendok. "Gu greba mugabakoan gagoz eta uste dogu horrek gure greba eskubidearen kontra egiten daukela".

Kaleratzeak

Negoiazioak aurrera ez dabela egiten salatuten dabe beharginak. "Grebak hasi ginan eguneko moduan gagoz. Enpresek ez dau pausu bat be egiten: dana blokeauta dauka eta ez dauka ezelango asmorik mobiduteko".

"Jakin badakigu Extremaduran lan egitearena engainu bat dala. 50 personako plantilla honetatik enpresek Extremaduran 6 persona asko jota, euki gura ditu. Eta besteak izkutuko kaleratzeak baino ez dira".

Deslokalizazioa ez gertatzeko neurriak hartzeako eskatzen



Incoesa enpresako ataria.

deutseez erakundeai eta burrukan jarraituko dabe Incoesako beharginak. Maiatzaren 27tik greban dagoz tailerreko behargin guztiak. Teknikoak Derion dagozala beharrean dino tailerrekoak eta honeek hortik ez mobiduteko asmoa daukela enpresek.

Greba mugabakoaz gainera, ia egunero konzentrazioa egiten dabe goizetan kamino ondoan. Bilbon be hainbat konzentrazio egin dabe, urri lehenengoaren 24an Batzar Nagusien aurrean,

berbarako.

Erakundeak

Batzar Nagusietan protestan egozanean Jose Luis Bilbao Diputadu Nagusia beharginengana hurreratu zan eta arrazoiak daukiela eta deslokalizazio bat dala esan eutsiela dino Mendok. "Guk erakundeai eskatzen deutseguna zuzeneko inplikazioa eta borondate politikoa da, lana Bedian geratu daiten, Arratian geratu daiten".

DIMA / IGORRE

Superberbalagun egitasmoa martxan

Erredakzioa

Zabalik dago Berbalagun egitasmoan izena emoteko epea. Dima eta Igorreko Udalak herrian dagozan Berbalagun taldeak indartu eta barriak sortzeako asmoagaz bat egin dabe Euskaltzaleen Topaguneak urtero antolatzen dauan Berbalagun kanpaina bateratuan.

Topaguneko zuzendariak egitasmoa aurkezteko emondako prensaurrekoan nabarmendu eban ez "egunerokoan euskerearen alde bere alea jartzen daberen supermintzalagunak omendu gura dauz aurtengo kanpaineak, izan be, ahalegin horrerik esker bizibarritzen da euskerea, eta superheroiak bezala, sarri ikusezina izaten dira". Aurreko ikasturtean 5.500 berbalagun alkartu ziran Euskal Herri osoan hedatuta egozan egitasmoetan.

ETA ZUI ZU BE SUPERHEROI BAT ZARA. ALKARTU GEUGAZI!

ZER DA SUPERGURDOLAGUNA?
Gureontzako berbalaguna da, kalteteko gurasok beste gurasokaz batzen dituen berbalagunaren aldea da. Haurrak dirala eta, euren erluzagi edo zainza beharretara egokitu da.

IZER-EMOTER:
Urriak 30
Igorreko eta Dimaiko udalarekin edo kultur etxean

DIMAKO UDALA:
kultura.dima@bizkaia.org
94 631 57 25

IGORREKO UDALA:
euskera@igorre.net
94 631 53 04

Taldek azaroen zehatzki dira

ARRATIA

Bizkaibus greban



Erredakzioa

Bizkaibuseko beharginak, Bizkaiko Foru Aldundiagaz akordio batera ez badira heltzean, hurrengo egunetan egun osoko grebak egingo dabezala iragarri dabe: urri bigarrenaren 3an, 8an, 9an, 10ean, 14an, 15ean, 16an, 17an eta urri bigarrenaren 21eko astean, aste osoan, astelehenetik domekara.

ARRATIA

Arratia eta Galdakaoko enpresarien jardunaldia

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak eta Galdakaoko Behargintzak eskualde bietako enpresariak eta autonomoak batu zituen urri lehenengoaren 26an Compite programearen barruko jardunaldi tekniko baten.

Topaketa honetan, "merkadu barriak bilatzeko bidean dibersifikazioak dituan ezaugarriak aztertu ziran, eta bide-orria eskeini zan, enpresak gida bat euki dagien euren negozio-estrategia beste produktzio-gune batzuetara bideratzeko orduan" mankomunitateak jakitera emon dauanaren arabera. Helburua enpresa txiki eta ertaintzako negozio-aukerak sortzea eta bailarako eta inguruko enpresentzako lehiakortasuna hobetuko daben proiektuak sortzea da.

ARANTZAZU

Sanfaustoak

Erredakzioa

Sanpedroak eta sanfaustoak dira Arantzazuko jaiak. Denporearen podesuz, sanpedroak jai nagusiak bihurtu dira eta sanfaustoetako ospakizunak murriztuz joan dira, baina aldi berean, frontoiko herri afaria finkazen joan da.

Herri afaria San Fausto bezperan egingo dabe hilaren 12an. Menua urterokoa izango da: patatak errioxar erara, "luma-gorri" oilasko iztarrak brasan erreta, postrea, kafea eta kopea. Afalostean, erromeria egongo da Jokaldi taldeagaz eta gero zozketea egingo da: persona birentzako spa zirkuia eta buffet librea Arantzazuko bainuetxean izango da saria.

Egun horretan bertan, baina arrastiz, umorez ekingo deutsee Arantzazuko txapelketa biri. Izan be, arrastiko bostetan Ugel eta Tiragoma Txapelketen finalak izango dira. Honeetan parte hartzeako izena hilaren 7a baino lehen emon behar da.

DIMA

San Fresku jaiak Indusin

Erredakzioa

Asisko Franziskoren eguna da urri bigarrenaren 4a eta sanfreskuak ospatuteko egun biko egitaraua antolatu dabe aurten auzune honetakoak. Honen arabera, Mañukorta egongo da zapatuan Indusin, bere bertsoakaz jaigiroa animetan. Eta zapatuan bertan baina iluntzean, Berakatz-zopa Lehiaketea. Udagoieneko iluntze freskoetan, ez dago zopea baino gauza ederragorik eta.

Urri bigarrenak 4, barikua

12:00etan, mezea.
13:00etan, barauskarria.
17:00etan, Briska Txapelketea.
19:30etan, txitxi-burruntzia.
21:00etan, erromeria Koldo eta Isaak taldeagaz.
22:00etan, txokolatea.

Urri bigarrenak 5, zapatua

12:00etan, umeentzako jolasak.
13:00etan, bertsolariak: Mañukorta eta Areitio.
14:30etan, Baba-lapikoko Lehiaketea.
17:00etan, Dimako Gazte Barri

jantza taldearen emonaldia.

17:30ean, Herri kirol desafioa: trontzan 15 korte vs motozerreagaz 60 korte; txorokil batuten eta aizkoreagaz norgehiagokea.

19:00etan, Berakatz-zopa Lehiaketea.

19:30ean, Tortilla eta Ogizko tostada Lehiaketak.

22:00etan, erromeria Iker eta Izar taldeagaz.

22:30ean, auzokoen antzerkia.

23:00etan, mozzorro lehiaketea.

23:30etan, txokolatea.

00:00etan, zozketea.



IGORRE



Aurkezpena hurreratu zan jentea Lasarteko plazan.

"Eizu kiñu!" espazio autogestionaua lortzeako ekimena martxan

Erredakzioa

Leku autogestionau bat lortzeako Igorreko gazte talde batek "Eizu kiñu!" ekimena abiatu eta Kultur Etxean aurkeztu eban urri lehenengoaren 20an. Ekimenaren aurkezpenaz gainera, umeentzako tailerrak eta MG taldearen kontzertua egon ziran bertan.

Igorreko gazte talde honek berbaldiak eta kontzertuez gainera, ortua, janlekua eta bizikletak konpontzeko gune bat ipini gura

ditu martxan: horretarako "banku baten eraikina" lortu gura dabe eta Udalarai eskatu deusie bitartekari lanak egiteko bankuagaz.

Sinadurak batzeako, barriz, Lehendakari Agirre kalean ipinten dira zapatu goizetan, eta tabernetan be badagoz sinatzeko orriak. Pagau behar diran aisialdiako ekintzai alternatiba bat izatea leku hau gura dabe gazteak. Bertan, "herritar guztiak lekua eukiko dabe" ekimenaren bultzatzaileen berbetan.

IGORRE

Aurrekontuak prestatzeko bilerak hasi dira

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 23an izan zan Igorreko Udalak egindako lehenengo auzo batzarra datoren urteko aurrekontuari begira Udalak herritarren proposamenak jasoteko. Lau batzar egin dabez eta beste sei dagoz deituta.

Garbe-Mikele, San Juan, erdigunekoak eta Gesala-Basauntzeko bizilagunak egin dabez euren ekarpenak. Hilaren 2an Urkuzu-Garakoikoen txandea izango da eta hurrengo egunean San Kristobalekoren txandea. Bertako txokoetan egingo dira batzarrok eta honeekaz amaituko dira auzoetako batzarrek. Ondoren

arloko batzarrek hasiko dira. Hilaren 7an, Kirola eta Kultura arloko batzarra izango da. Hilaren 8an gazteak, 9an jubiladuak eta 10ean andrak batuko dira udal ordezkariak euren lehentasunak adierazoteko. Arloko batzar honeek Kultur Etxean izango dira, jubiladuen izan ezik, Jubiladuen Etxean izango da berau eta. Batzarrek 19:30ean dira eta gai orden hau eukiko dabe: Diru sarren estimazioa eta progresioa, aurrekontuen ejekuzioa maila eta egindako inbersioak, aurreko urteko akten betetze maila, ekarpenak jaso, inkestea bete, Jarraipen Batzordeko kideak aukeratu eta amaitzeko akta banandu.



Igorre.

IGORRE

Lehen Laguntza ikastaroa antolatu dau Gurutze Gorriak

Erredakzioa

Igorreko Gurutze Gorriko egotzan, larrialdi baten lehen laguntza emoten ikasiko dabe Gurutze Gorriak antolatu dauan ikastaroan parte hartzean dabenak. Eskolak hilaren 5etik zementiaren 23ra arte izango dira, zapatuetan, goizeko bederatziretatik arrastiko zazpirak arte. Ikastaroa amaitutakoan Arratiako Gurutze Gorrian boluntario moduan jardun ezkerro, ikastaroaren prezioa itzuliko jakie ikasleai.

ARRATIA

Alemaniara joango zinateke beharrean?



Erredakzioa

Asko dira atzerriara joan diran gazteak behar bila. Gure irakurleak be atzerriara joan diran ala joateko prest dagozan jakin gura dogu eta horixe izango da gure urri bigarreneko itauna: behar barik egongo bazina eta biziteko lain emoten dauan behar bat topauko bazendu, demagun, Alemanian, hartuko zeunke behar hori?

Erantzunen artean, aukera bi baino ez: bai eta ez. Botoa www.begitu.org gure webgunean emon daiteke.

Sare sozialetan bai, baina neurrian

Abuztuan ea gure irakurleak sare sozialak erabilten dabezan jakin gura izan genduan eta inkesteari erantzuna emon deusien guztiak erabilten dabez. Hori bai, neurrian. Izan be, erdiak bat baino ez dabe erabilten eta laurden batek bi erabilten ditu (facebook eta twitter, facebook eta bloga...). Beste laurdenak hiru edo gehiago erabilten ditu.

AREATZA

Arratia erreka lanak martxan

Areatzan, erreka ondoko lanak hasi dira. Lan honek herrian uriolak saihesteko helburua daukie eta URA ur agentziak egindako proiektua da. Berak finantziatzen dau obren kostua, 1.623.000 euro udal iturrien arabera.

Erredakzioa

Lanak amaitutakoan, Zubizarra-oren orde zubi barri bat izango dabe Areatzan, eta errekearen ezkerreko baztarrean pasealekua. Lanok SIEC Construcciones y Servicios enpresek egiten ditu.

Udalaren ustez, proiektu hau ez da bakarrik onuragarri uriolak prebeniduteko, aisialdirako espazio gehiago izateko eta biodibersidaderako be ona izango da eta. Plan honek "ibaiaren baztarren egoera naturala berreskuratuko da ibaiaren ibilguari bere sakonera naturala itzuliz, zubitik uretan gorako presa txikia erai-tsiz" di-noe.

Izan be, nahiz eta herritik pasau, Arratia ibaiak biodibersidade handia dauka Areatzan eta sano egoera naturalean mantendutun

da. Arratia eta Indusi ibaietan orain dala gitxi arte, behintzat, bisoi europearra edo ur-ipurtatsa (*mustela lutreola*) egon da. "Azken urteotan egindako kanalizazioak tarteko, eta bisoi amerikarragaz konpetentzia dala eta, atzeraka ari da Euskal Herri osoan, eta Bizkaian be bai. Posible da oraindino Arratian bisoiak egotea, eta galtzean badira ibaiaren kanalizazioakaitik eta ibai baztarretan egiten diran obrakaitik izango da besteak beste, bere habitata guztiz kaltetzen dabe eta" dino Joxerra Aihartza EHUko biologia irakasleak.

Proiektu honek suposatzen dauan erreka ingurua eraldatzeak bertako biodibersidadea galtzea ekarriko dauala uste dabe auzoko batzuk be.

Lanak onak izango dirala he-

rritarrentzat eta bertako fauna-arentzat dino alkateak. Proiektuaren arabera, ibaiertzak landarez beteko dira, "bertako espezie desbardinakaz, biodibersidadea hobetuteko". "Geratuko dana, orain daukaguna baino hobea izango da. Baita bisoiarentzat be" dino Basozabalek.

Uriolak prebenidu eta zerbitzu barriak

Plan honen helburu nagusia uriolak eta horreen kalteak prebenidutea da. Areatzan uriolak urigune historikoa kaltetzeko arriskua dakarre: hain zuzen be, urez gaineztatzeko Errukiñe eta Gudarien Plaza; eta Bekokaleko eraikinen atzeko partek hondoratze arriskua daukie "zimendatze faltagaitik" udaletik jakinarazo dabenaren arabera. Hori ebitatzeaz gain, lan honek,



Errekako baztarreko obrak hasi dira.

hondakin-uren saneamentu azpiegiturak eta argiztapen publikoa be egingo dira eta zubi barriak be zer-

bitzu barriak (gasa, zuntz optikoa...) eroango ditu ibaiaren ezkerreko baztarreko etxebizitzetara.

AREATZA

Orain 200 urteko ezkontzea antzetzuko dabe Areatzan

Aurten Areatzako Euskal Jaian landuko daben gaia Euskal Ezkontza izango da. Aurreko urteetan legez, herritarrak erropa tradizionalakaz jantzita antzetzuko dabe ospakizun hau.

Erredakzioa

Arratiako ekoizle eta artisauen feria be ez da faltako, ezta herri bazkaria frontoian.

Goizeko hamaitetan, konbidau guztiak senargaiaren etxe aurrean batuko dira anisa eta txokolatea hartzeako eta gero andragaiaren etxerantza, Gortazar jauregirantz, abiatuko dira. Andragaiaren etxe aurrean, bertsotan egingo dabe ezkontzeko baimen eskaera. Burdiaren atzetik konbidauak, musikeagaz eta kalejiran joango dira herritik zehar eta hiru geldiu-ne egingo dabez. Lehenengoan, Errukiñe kalean, Areatzako jantza taldeak egingo dau jantzan; bigarrenan, eleiz aurrean, amodiozko euskal kantak kantaiko ditue eta hirugarrenean, plazan, ezkontzea ospatuko da eta parte hartzean daben guztiakaz argazkia aterako dabe.

Asko izango dira duda barik, erretratuan agertuko diranak: ezkongaiak, familiakoak, lagunak, Ameriketako osaba-izekoak, jauntxoak, notarioa... Ondoren erromeria egingo dabe plazan eta kantu poteoa, Arratiako trikitalari, albokari eta musika tradizionala jotun daben laguntzeagaz.

Arratiako ekoizleen feria

Areatzako Euskal Jaiaren beste erreferente bat, bertako produktuen feria da. Billaroztar askok hartzean dabe parte antzerkian, eta beste asko erropa tradizionalakaz jantzita ibiltun dira ferriako postuetan bertako produktuak erosten, beste sasoi baten murgilduta. Goizean zehar, alde zahar-rean, Arratiako produktuen eskeintza ugaria egongo da: Gorbeaiako gaztaiak, eztiak, ortuariak, ogia, pastela, sagardoa, taloa...

Herri bazkaria hiruretan izango



Kartela.

da frontoian. Bertan, Taberna ibiltaria taldeagaz kantak eta jantzak egongo dira.

Jaiari amaierara emoteko, 20:00etan erromeria plazan Lotso taldeagaz eta berakatz-zoepa plazan.

IGORRE

Zeberriko oiloak Garbeko azokan urri bigarrenaren 13an

Erredakzioa

Garbe auzoko azokan baserrietako ortuariak, frutea, gaztaia, ogia, pastelak eta eztiak erosteko aukerea egoten da besteak beste. Sortu zanean, 1975. urtean, auzuneko baserriarrek ganadua erakusten baeben be, laster ortuariak erakustera pasau ziran, ganadua menditik ekartea gatxagoa zalako, Ramon Urkiza antolatzailearen arabera.

Aurten be, ortuariak izango dira

nagusi eta nobedade moduan, ganadurik egon ez arren, Zeberriko oiloak egongo dira Garbeko Azokan. Azokea hilaren 13an izango da, goizeko 09:30etik ordu biak ingurura arte. Eguerdian produkturik onenai sariak emongo jakiez.

Bizkaia eta Arabatik etorritako ekoizleak, 50 erakusmahai ingurutan erakutsiko dabez euren produktuak Bizkaiko azokarik zaharretakoa dan honetan.

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

ARGAZKI LEHIAKETE

"Oroitzapenak sortzen" argazkia izan da lehiaketako irabazlea

Joseba Rodriguez igorretarrak bialdutako "Oroitzapenak sortzen" izeneko argazkia izan da aurtengo oporretako argazki lehiaketako irabazlea. Argazkia Cadizen aterata dago, El Palmar hondartzan. Puntuazino bardina jaso eta bigarren geratu ziran Aitor Arnaizek bialdutako "Britania5" argazkia, eta "Pechon-Cantabria" Miren Begoña Idigorasek bialdutakoa. Guztira, 81 argazki egon dira lehian, hur edo urrin ateratakoak, arratiarren oporrak gogoan eukiteko modukoak izan dirala aditzera emonez. Hona ekarri doguz batzuk, danak ikusi gura izan ezker, gure webgunera jo: www.begitu.org.

**"Kolorea". Mikel Urriz.****"Oroitzapenak sortzen". Joseba Rodriguez.****"Bretania7". Marisa Aldekoa.****"Euskaraz zoriontsu oporretan". Gorka Barrenetxea.**



"Pechon-Cantabria". Miren Begoña Idigoras.



"Oporrak Porton". Jone Ozerinjauregi.



"Bretainia5". Aitor Arnaiz.



"Jausiko ote da itargie". Luis Carlos Bilbao.



"Urgaineko herria". Jagoba Etxezarraga.



Inma Sagarnaren argazkia. Sentier des douaniers, Côte Granit Rosen aterata.



Oihane Goioagaren argazkia.

MENDIA

Mendi eta bizikleta martxak Diman

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 12an, VII. Sisetan mendi martxea eta V. BTT martxea izango dira Diman. Mendi martxan parte hartu gura dabenak 08:00etan urtengo dira Dimako plazatik eta ibilbide bi daukiez aukeran. Bata luzea, 37 kilometrokoa eta bestea laburragoa 21 km.koa. Bizikletariak barriz, 09:30ean daukie urteteko ordua, plazatik honeek be eta 36 km. egin behar ditue.

Izen emotea aurretik ala egunean bertan Dimako plazan egin daiteke. Mendiko martxa egiten dabenak 6 euro ordainduko dabaz aurretik eta 10 egunean. Bizikletariak ostera 8 euro aurretik eta 12 egunean.



Urtean-urtean ibiltari asko bazean dabez martxa honek eta Bizkaia osotik etorten dira ibiltariak, Rafa Ugalde Dimako alkatearen arabera.

HERRI KIROLAK

Sega eta Trontza Txapelketak

Erredakzioa

Bizkaiko 100 metroko Sega Txapelketea jokatu da Abadiñoko Amaitekin auzoan (Basagureneko soloetan) urri bigarrenaren 5ean arrastiko 17:00etan.

Bertan 10 bat segalari egongo dira: German Egiluz, Migel Angel Gondra, Migel Angel Goioaga, Igor Astondoa, Pabi Astondoa, Angel Maguregi, Jon Intxaurre, Irati Astondoa eta Jon Lapzaran. Beste segalari batzuk be hartuko dabe parte, baina atzenengo momentura arte antolakuntzakoak ez dabe jakingo zehatz parte hartzaileak nortzuk izango diran.

Nazinoarteko erako txapelketa izango da eta txukuntasuna eta arintasuna izango dira balorauko diranak. Bizkaiko Herri Kirol Pla-

taformeak antolatu dau txapelketea. Bizkaiko herri kirolariak ez dagoz ados Bizkaiko Federazioak daukan funtzionetako moduagaz, horregaitik txapelketa hau eurak aurrera eroatea pentsau dabe.

Trontza Txapelketa mixtoa

Urri bigarrenaren 7an ostera, Zallan arrastiko 19:00etan izango da Bizkaiko Trontza Txapelketa mixtoa. Naiara Etxebarria-Julen Etxebarria eta Irati Astondoa-Igor Astondoa arratiarrak osotutako bikoteak eta beste bikote bi arituko dira lehian.

Julen Etxebarria eta Igor Astondoa zeanuriztarrak txapela eroan eben Uharte-Arakilen urri lehenengoaren 22an egin zan Euskal Herriko Bigarren Mailako Trontza Txapelketan.

ABENTUREA

Txikon Xtrem saioa barriz EITBn

Erredakzioa

Txikon Xtrem saioa barriz izango da ETB1en domeketan, 21:00etatik aurrera, zemendian hasita. Saio honetan Lemoakoak bere erronkak ekarten ditu telebistara. Oraingoan, hamahiru abentura kontauko dira saioan, tartean Iruñea-Bilbao ultra trailekoa.

Iruñea-Legutio

Groenlandiatik etorri barri, Alex Txikon ezin izan eban Iruñea-Bilbao ultra trail mendi lasterketea amaituteko helburua bete. Urri le-

hengoaren 21ean izan zan 180 km. eta 6.500 metroko desnibeleko froga hau, eta Jorge Urkizu nafarrak irabazi eban. Alex Txikon parte hartu eban baina 120 km. egin ostean, bertan behera itxi egin behar izan eban "120 kilometro osatuta, desbideratu eta denpora gehiegi galdu neban. Legutio itxi dogu penatuta" inoan Txikon sare sozialetan.



Urriaren 12an: Sisetan

Heldu da sasoia. Heldu da perretxikotan, edo beste batzuek esaten daben moduan, sisetan joateko sasoia, eta sasoi berean Sisetan heldu da Dimara. Herriko gazte talde baten ekimena izan zana gorputzu eta sendotu egin da urteakaz, eta gaur egun bizkaitar askok eta askok ezagutzen daben mendi ibilaldia bilakatu.

Goizeko zazpiretarako hara eta hona ibiliko da jentea herriko plaza inguruan. Batzuek, ibilaldi luzeari ekiteko; beste batzuek, nahiko eukiko dabe ibilaldi laburra eginda; eta izango da bizikleta gainean akrobaziaren bat edo beste egin beharko dauanik be, bidean zehar topauko dauzan oztopoakaz estropezurik ez egiteko. Antolatzaileak, betiko moduan, beharrean ibiliko dira; eta zoritarrez udal langileak be bai.

Horreen guztien ahaleginari esker giro polita sortuko da Diman; bai ibilaldian zehar (ez dakit-eta ze misterioaitik, aspaldian ikusi ez doguzanak ibilian goazela topetan doguz egun horretan), batari agurka: "Iepa! Aspaldiko!", besteari, adar joka: "Mubidu egik eperdia tarraz habil eta!"; bai eguerdi aldean, ibilaldia amaituta txikito batzuk jo, eta pintxotxu bat jateko. Beti be, oparitu deuskuen kamiseta barria aldean polito-polito jantzita. Gainera, inguruko mendietako txoko barrin bat be ezagutuko dot, seguru; ondo-ondoan eukinda be, beti daukagu-eta zer ezagutu.

Nik ez dot huts egingo, ez mendi ibilaldira, ez pare bat txikito edatera. Eta zeu be, irakurle, konbidautu zagoz urriaren 12an Dimara etorten, Sisetan; perretxikorik topau ezik be, giro ederra baietz topau!

Rafa Ugalde Irigorri

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendizola, 3. 48530 LEZIOA, Bizkaia
Tel: 090 482 830 / 090 000 717

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober w 630 743 543
48.140 Igorre Manuel w 661 848 793

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabele Arria, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxe@hotmail.com

indar
Instalazio elektrikoak
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

UMER moda
sein
0-16
Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE
Tfnua: 94 631 92 96 • seinmoda@hotmail.com

AKETEGIA
GAY 5 LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTUTAN
ONDARIN HIGAZZINEN
ASIGURUTAN
Sabele Arria, 3. Floor. 94 673 71 41 - Fax: 94 673 71 41 - 48140 IGORRE

axular
kultura-erakunde
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES
Iturriotz barrena 8 • 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskolaraz zain erabaz
Garbe, 10 - 48140 Igoera (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unida.AU@euskalnet.net

DUATLOIA



I. Duatloi Herrikoia Igorren

Erredakzioa

Oskar Garro Lagun Taldeak Lehenengo Duatloi Herrikoia antolatu dau Igorren urriaren 13rako. Par-taideak 1,5 km galapan eta 4 km. bizikletan egin behar izango dabe. Amaitutakoan, txokolatea izango dabe indarrak barrituteko eta opariak zozketatuko dira euren artean. Parte hartu ahal izateko izena egunean bertan emon behar da 09:00etatik, 09:30era. Urtekerea 10:00etan izango da Igorreko eskoletan.

Duatloi honen helburua, "nire karrerarako laguntzea lortzea da. Horretarako, Igorreko herriarentzat zeozer antolatuten dogu. Igaz egokitutako txirindularitza erakusketea izan zan eta aurten hau" dino Oskar

Garro txirindularitza egokitan lehiatzen dan kirolari igorretarrak. Edozein edadetako jenteak egiteko moduko ibilbidea prestatu dabe. "Galapan Igorreko herritik zehar eta bizikleteagaz, herritik eta gero Arantzazuraino eta han Orobiko bidetik Igorrerera buelta". Amaierara be eskoletan izango da.

Babesle bila

Oskar Garrok txirindularitza egokitutako goi mailako txapelketetan hartzen dau parte, sano emoitza onak lortuz. Espainiako Txapelketan, bagilaren 2an, lau domina, lortu ebazan, hiru pistan eta bat bidean.

Datorren urteko Munduko Txapelketetan hartu gura dau parte Igorrekoak eta horretarako sponsor baten bila dabil.

FUTBOLA

Barriztatutako Arlonagusia futbol zelaia inaugurau da

Urri lehenengoaren 28an, Lemoako Arlonagusia futbol zelaiaren inaugurazio ekitaldia izan zan, udan birmoldaketa lanak egin eta gero.



Arlonagusia inaugurazioan jokalariek eta udal ordezkariak.

Erredakzioa

Obrak fase bi izan ditue, alde batetik obra zibila eta bestetik, bedar artifizialaren instalazioa. Inaugurazio ekitaldian, omenalditxo bat egin jakien Lemoako futbol taldeen presidente diran eta izan diranai, Durundibarri taldekoak jantzak egin eta futbol partidua jokatu eben Lemoako futbolari ohiak, Athleticen itxitako ekipajeakaz.

Hamalau plaka banandu zituen Saioa Elejabarrieta Lemoako alka-teak eta Aitor Erauzkin zinegotziak SD Lemoa futbol taldeko presidente izandakoen artean. "Danak ez dagoz gure artean" gogoratu eben, baina egozanak plakea eta publikoaren txaloak jaso zituen. Gero, Lemoako jokalariek ohiak talde bitan banandu ziran, Athleticen ekipazio desbardinak zituen talde bi osotuz eta futbol zelai barri-barrian jokatu eben partidua.

Lemoako futbol taldeen presidenteak:

Gaur egungoak:

Jose Luis Ordeñana
Alex Maguregi

Izandakoak:

Anton Etxebarria
Ignacio Aldekoa
Pablo Jordan
Niko Urkiza
Jose Barañano
Julian Betzuen
Jon Bikandi
Luis Maria Abendaño
Gerardo Manzanedo
Ildefonso Ugartemendia
Marcelino Lauzirika
Iñaki Bilbao Amorrortu

Izandakoak eta gogoan:

Laureano Bizkarguenaga
Francisco Barcena
Pantaleon
Jose Artabe
Felix Artabe
Alejandro Arrese
Jose Maria Mimenza
Manuel Abendaño
Jose Ramon Leiza
Jabier Etxebarria

Zugaltik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

INMOBILIARIA
Tfnoa: 94 631 80 04

ASESORIA
Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

FISIOTERAPIA
Balneario Areatza
Tania Fernandez Santiago
COL. 1718
Tel.: 94 657 54 50
www.gruposasoibide.com

ALKIZABAL
www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxa. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkala)

KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

· Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
· Garraio zerbitzua.

ONDAREA

Arratiak mantenidutako
ondarea ezagutzeko
aukerea hileon

Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako 2013ko Ondarearen Europako Jardunaldietan Areatzak, Igorrek, Ubidek eta Zeanurik hartuko dabe parte. Aurtengo jardunaldion helburua ondarea iraunarazoteko lanen "barrenak" erakustea da, hau da, "gure herentzia, gure memoria, gure nortasuna zelan berreskuratzen gabizan jakinarazotzea".

Areatzako uribildua

Areatzako kaleetatik bisita gidatuak eta Euskal Jaian egingo dan euskal ezkontzearen herri antzepeña dagoz Ondarearen jardunaldietan. Izan be, Areatzako Erdi Aroko kaleak historiako momentu desbardinatan aldaketak jasan dituan ondarearen adibide dira. Bisita gidatuak hileon 12an eta 13an izango dira, 11:00etan, 12:00etan, 17:00etan eta 18:00etan, Gudarien plazatik

abiatuta.

Euskal Ezkontzaren herri antzepeña, barriz, hileon 5ean izango da, Areatzako VI. Euskal Jaian. "Denporan atzera egin eta euskal ezkontza tradizional baten lekuko izango gara: bikotea eta senide guztiak –baita Ameriketako osaba be- abadea eta meza laguntzaileak, alkatea, emaztegiaren ezkonsaria irakurten dauan notarioa eta, jakina, arreoaren erateko idiak tiratutako burdia" antolatzaileen arabera.

Igorreko Andra Mari Eleizea

Aldaketak izan dituan ondarearen beste adibide bat Igorreko Andra Mari eleizea da. Eleiza hau XVI. mende hasieran berregin zan osorik eta XVIII. eta XX. mendeetan handitu. Azken urteotan beste esku hartze bat izan dau baina oraingoan erispide konserbadoreak erabilia: indusketa arkeologikoa egin zan lehenengo eta gero ba-



San Justoko karobia.

rrukaldea barriztan zan.

Hau bisitetako aukerea hileon 26an, goizeko 11:00etan egongo da Angel Larrea historialariagaz eta izena Kultur Etxean emon behar da.

Ubide-Zeanuri Larreen Mankomunidadea

Aurten be, Ubide eta Zeanuri arteko Larreen Mankomunidadearen Zeharkaldian ondare materiala, galtzadea; zein inmateriala, mankomunidadeko zorrak kentzeako bilera, ezagutzeko aukerea izango da hileon 26ko mendi martxan parte hartu ezker. "Bilera hau dala

eta, Ubidetik eta Zeanuritik igaroz, Gasteiz eta Bilbo lotzean zituari Erdi Aroko galtzadearen bidea jarraitzen dauan ibilaldia antolatzen da. Amaitutakoan, udal biak osoko bilkura egin eta bilera-agiria sinatu ostean, zinegotziak anaiarteko bazkaria egiten dabe".

Urtekera Ubideko plazan izango da 10:00etan. Bilkura 13:00etan Zeanuriko udaletxean.

Karobia, errotea, eta kofradietatik ibilbidea

Zeanuriko ondarearen aldaketak ezagutzeko hiru zita dagoz: hileon

5ean, 12an eta 19an, hain zuzen be. San Justoko karobia bisitetako aukerea hileon 5ean izango da, goizeko 10:00etan Zeanuriko plazatik urtenda. Ondoren, Olabarrira hurreratuko dira ibiltariak. "Jatorrian burdinola izan zan, XIX. mendean erdialdean errota bihurtu arte" dino Jon Urutxurtu historialariak.

Hileon 12an, barriz, Zeanuriko kofradietatik ibilbidea dago antolatuta. Kofradiak Bizkaiko landa-eremuan auzo bereko etxeak edo familiak zituen beharizan komunalai erantzuna emoteko helburuagaz antolatutako alkarte administratiiboak ziran. Udalerria zazpi kofradiak osotuten dabe eta ibilaldi honetan, horreetako hiru ezagutuko dabez parte hartzean dabenak: Ibarguen, Otzerinmendi eta Undurraga-Ipiñaburuko kofradiak. Ibilbidean zehar, leku esanguratsu batzuk bisitauko dira, esate baterako, enparantza, ferratokia, Ibargutxiko errotea edo Ipiñaburuko parrokia.

Eleizondoko monumentu multzoa be erakutsiko dabe jardunaldi honeen barruan: Andra Mari parrokia, Nestor Basterretxearen kurutzeta eta Piedadea, hain zuzen be. Erlijino ondare hau ezagutu gura dabenak, hileon 19an, arrastiko 18:00etan daukie zitea Zeanuriko plazan.

LEHIAKETEIA

Egutegia egiteko Argazki
Lehiaketeia Lemoan

Erredakzioa

Lemoako Udalak Lemoako II. Argazki Lehiaketeia antolatu dau 2014ko egutegia egiteko. Lemoa gai hartuta, edonork hartu daike parte lehiaketeia honetan, zuri-baltze edo koloretako argazkiak kultura@lemoa.net helbidera, zemendiaren 8a baino lehen bialduta.

Partaide bakotzak argazki bakarra aurkeztu ahal izango dau. Epaimahaiak 12 argazki aukeratu ditu Udaleko 2014ko egute-

gia osotuteko. Saritutako argazki bakotzak, egutegian argitaratzeaz gainera, 30 euroko saria izango dau. Sariok Gabonetan bananduko dira.



BERTSOLARITZEA

Eskolan bertsoan ikasteko proiektua sendotuz doa

Erredakzioa

Bizkaiko Bertsozale Elkarteak "Gu ere bertsoan" proiektua jarri dau martxan Lemoako JB Eguzkiza Meabe LHIn, Igorreko Inazio Zubizarreta ikastetxean, Arteko Arratia ikastetxean, Areatzako herri eskolan, Zeanuri LHIn eta Zebiri Zubialde ikastetxean. Urri bigarren hasi eta maiatzera arte iraungo dau ikasturteak eta bosgarren eta seigarren mailako ehun eta berrogeta hamar ikasle parte hartuko dabe. Urteetako lanak emoten dauan esperientzia lagun, hobetuz eta sendotuz

doan proiektu honek oso harrera ona izaten dau urtero gaztetxoek eta irakasleen artean.

Astero ordu batez, bertsolarietako irakasle bat hurbilduko da gelara. Hamabi sekuentzia didaktiko barritan banandutako bertso liburua eskuartean, euskera, kultura, musika eta trebetasun personal eta sozialak (jentaurrekotasuna, autoestimua, alkarkidetzea...) landuko dabez ikasleak. Aurten, gainera, lau urterik behin ospatzen dan Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiari be jarraipena egingo jako gelan.



Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak - Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak

Juan de Ajujagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Avda. Los Chopos, 35 (Nagus) Tel.: 94 630 40 94
Esposizioa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

***KIRRU* ILEAPANDEGIA**
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 beko - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3, 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

Emilio Gaitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialea E-3 Pabellon (Igorre)

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Balnoki: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 31
Igorre: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@coavn.net

ONDAREA

"Etxe mudejarraren" fatxadako igeltsuak eta teilatua konpontzen

Erredakzioa

Areatzako, "etxe mudejar" moduan ezagutzen dan etxea konpontzen hasi dira. Kultura ondare moduan babestuta dago eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza daukie lan honek bai diru aldetik, baita konponketarako aholkuak emonaz be. Hileon fatxadea finkatu eta hurrengoan teilatua konpontzen hasi dira.

Fatxadako igeltsu horreen konponketa dala eta, eztabaida bat dagoala dino Josu Basozabal Areatzako alkateak "geratu dana mante-

nidu ala falta dana be berregin. Beti be argi itxiz zer dan mantenidu dana eta zer berregin dana".

Alkatearen arabera Areatzakoa Bizkaiko uribildu bateko etxerik zaharrena da eta egoera txarrean egoala ikusita, Udalak etxea erosi eban eta konponketa lanak hasi ditu Foru Aldundiaren laguntzeagaz.

Gotiko berantiarra

Herrian etxe mudejar moduan ezagutzen dan etxea, "XVI. mendearen lehen laurdenean egin zan, lehenago Gasteizera joian bidean, han sortu zan zabalgunea gaur egun

Errukiñe kalea deitzen da. Horrek esan gura dau Areatzako etxe hori gotiko berantiarra, edo hispaniar-flamendarra be deitua, indarrean egoanean eregi zala" azaldu deutso BEGURI Angel Larrea historialariak. Baina mudejar berbea be egokia dala dino historialariak "Arkitektura eta arte arloetakoa dalako, eta esangura kultural zabalagoa daukalako. Mudejar estiloko obrak ugariak dira Avilan (Arevalon, esaterako) eta Gaztelako beste hainbat lekutan, artisauek kristinauak eginak, Behe Erdi Arotik modan egozalako eta gustukoak ziralako. Areatzako etxea dinamika horretakoa da antza, Burgos edo Palentziako artisauen tailerretan landutako tradizionokoa".

Baina etxearen elementurik nabarmenena fatxadako dekorazioa da. "Igeltsua da erabiltzen dan ma-

terial apaingarria, "mudejar" edo "gotiko-mudejar" estiloan. Bietara

esan daiteke, "igeltsu mudejarra" erabiliko neuke" dino Larreak.



Etxe mudejarra barrizatzen dabiz Areatzan.

BARDINTASUNA

Tailerra eta lehiaketa bardintasun jarkerak bultzatzeko

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitatearen Bardintasun Zerbitzuak jentaurrean berba egiteko tekniken gaineko tailerra antolatu dau, 16 eta 29 urte bitarteko neska zuzenduta. Ikastaroa astelehenetan izango da, hilaren 14an hasi eta abenduaren 2ra arte, Mankomunitatearen egoitzan. Esti Redondo kazetaria izango da irakaslea.

Neska gazteak zuzenduta egon arren, lekuri balego, andrazko

guztiai zabalik egongo litzateke "euren bitartez, inguruan dabezan neska gazteak tailerrean ikasitakoa zabaltzeko" dino Miren Urresti Mankomunitateko Bardintasun Teknikariak. Izan be, ikastaro honen helburua andrak "publikoan berba egiteko daukizantz oztokoak gaintitzea" da.

Beldur barik lehiaketa martxan

Arratiako 12 eta 26 urte arteko gazteak zuzenduta, aurten bigarren aldiz, Bardintasun Zer-

bitzuak Beldur Barik Lehiaketa antolatuko dau Arratian. Honen helburua andren kontrako diskriminazioak ikustarazoten dituen adierazpen artistikoak saritzea eta bultzatzea da. Lanak errespetuan, bardintasunean, askatasunean, autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeriaren kontrako konpromiso sendoan oinarritutako jarkerak ikustarazot behar ditue.

Kategoria bi dagoz, 12 eta 17 urte bitartekoa, eta 18 eta 26 urte bitartekoa. Lan proposamenak jarrera@beldurbarik.org helbidera bialdu behar dira.

Proiektu guztiak ikus-entzuzko formatuan aurkeztu behar dira, zemendiaren 25a baino lehenago bideo plataforma ba-

ten esteka emonaz: Youtube, Vimeo, Bliip eta abar. Adierazpide mota guztiak onartuko dira, baina bideo formatuan aurkeztuta: film laburra, bideo-klipa, lipduba, jantza, errezitautako poemak edo kamarearen aurrean irakurritako gogoetak, bideo-proiektuak, ar-

gazkiak edo artelanak erakustea, uri inguruko *performance*ak eta esku hartzeak eta abar.

Lehiaketa bikotxa da: alde batetik, Berdinsareak Euskal Autonomia Erkidegoan antolatutakoa eta, bestetik, Arratiako sariak. Bietan arauak berberak dira.

**BELDUR
BARIK
LEHIAKETA**



DUNBA

Etorkizuna gure esku

Ibone Olaskoaga eta Sukaina Ben Taleb Arratia BHIko Batxilergoko lehen mailako ikasleak

Gure Batxilergoko lehenengo eguna zan. Klasera sartu baino ez, eta Juantxuk "Egun on!, ¡Buenos días!" esan eban, orduan, euskerearen arriskuak buruzko txarla bat emoten hasi jakun.

Zergaitik baina beste erderakada bategaz nahastu "Egun on"? Ezin dogu amaitu esaldi bat euskeraz erderakazoak esan barik, ala?

Hor konturatu ginan zelango erreztasuna daukagun euskeraz berbaz ibili eta atontan erderaz pasetako, nahiz eta askotan gura barik izan. Konturatu barik egiten dogu, bai, baina jarkera horregaz

euskerea gero eta gitxiago erabiltzea baino ez dogu lortzean. Horregaitik, eta Juantxuk emondako txarleak asko pentsarazot egin euskulako, beragana hurbildu eta gure klaseko euskera arduradunak izateko geure buruak opatu genduzan.

Zergaitik gura dogu klaseko euskera arduradunak izan? Bueño gehienak, egia esan, klaseak galtzeako asmoagaz egiten dabe. Baina gure kasua ez da hori. Apurka-apurka ikusten joan gara institutuan gero eta euskera gitxiago entzuten dala. Eta hortik kanpo be, esate baterako bariku arrasti baten, ez da euskera askorik entzuten, nahiz eta Arratian egon.

Orain dala asko be ez zan izan,



Institutuko ikasleak Inbiu Egunean.

Portugaleten ospatu zan Ibilaldian hain zuzen be, antolatzaile batengana joan euskeraz, eta berak "¡Hablame en castellano, por favor!" esan euskunean. Ibilaldia ez da egiten euskerea bultzatuteko asmoagaz, ala?

Arratiako gazte gehienek mo-

duan, guk be Igorren lokal bat daukagu, asteburuetan batez be kuadrileagaz batera denporea emoteko. Bertan, nahiz eta triste izan, gehien bat erderaz egiten dogu berba. Normala ete da 17 urteko gazte batek euskeraz hileak be ez jakitea? Ba oraingo

euskal gazteria holangoa da...

Euskereari eustea inportantea da, azken batean euskaldunon nortasuna dalako, gure altxor bereziena, zazpi probintziak batzean ditua. Gure adinekoengana euskerea bizirik heldu da. Zergaitik ez dogu behar egingo etorkizun euskaldunago baten alde?

Koldo Mitxelena, euskereak euki dauan ikertzailerik handienak esan eban moduan "euskararen egiazko misterioa iraupena da, ez jatorria". Eta hau, danon esku dago.



AGENDEA

**URRI BIGARRENA
IGORRE**

Hile osoan, *Ckristopaganía* erakusketea Kultur Etxeko Erakusketa Gelan.

ARTEA

Udalak antolatutako 2013-2014 ikasturteko ikastaroak hasiko dira urri bigarrenaren lehenengo astean.

**URRI BIGARRENAK 2
IGORRE**

19:30ean batzarra. Aurrekontu parte-hartzaileak, "Pausoz pauso, auzoz auzo". Urkuzu-Garakoin.

**URRI BIGARRENAK 3
IGORRE**

19:30ean batzarra. Aurrekontu parte-hartzaileak, "Pausoz pauso, auzoz auzo". San Kristobalen.

**URRI BIGARRENAK 4
DIMA**

San Fresku jaiak Indusin. Ikusi egitaraua 6. Orrialdean.

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" Herririk antolatutako errepresaliaduen aldeko konzentrazioa herriko plazan. Harrera alkartearen aurkezpena egingo da bertan.

LEMOA

20:00etan, Lemoako Korakal antolatuta, kantu-pote Amorrortu tabernatik abiatuta. Ibilbidea: Amorrortu, Herradura, Kodigo eta Kresala.

**URRI BIGARRENAK 5
AREATZA**

Euskal Jaia. Ikusi egitaraua 7. orrialdean. Parketxeak antolatuta, mendi ibilbidea "Oreinarene marrualdia ezagutzuz".

IGORRE

09:00etan, Lehen laguntza ikastaroa Gurutze Gorriko egoitza. Arratiako Gurutze Gorriak antolatuta.

22:00etan, zinea *Guerra Mundial Z* Lasarte Aretoan

ZEANURI

10:00etan, San Justoko karobia eta Olabari errotea. Urtekerea Zeanuriko plazatik.

ZEBERIO

09:30ean, Austarri Kultur Taldeak antolatuta, Ermitarik Ermita mendi martxea. Ermitabarrin.

**URRI BIGARRENAK 6
IGORRE**

17:00etan, umeentzako zinea *Los Pitufos 2*. 19:30ean, zinea *Guerra Mundial Z* Lasarte Aretoan.

**URRI BIGARRENAK 7
BEDIA**

17:00etan, lehenengo sei hilekoan egindako ekintzen argazkien erakusketea. Liburutegian hilaren 18ra arte.

IGORRE

19:30ean batzarra. Aurrekontu parte-hartzaileak, "Pausoz pauso, auzoz auzo". Kultura eta Kirola arloetako batzarra. Kultur Etxean.

**URRI BIGARRENAK 8
IGORRE**

19:30ean batzarra. Aurrekontu parte-hartzaileak, "Pausoz pauso, auzoz auzo". Gazteria arloko batzarra. Kultur Etxean.

**URRI BIGARRENAK 9
BEDIA**

Jubiladuen eguna. Ordiziako azokara urtekerea.

IGORRE

19:30ean batzarra. Aurrekontu parte-hartzaileak, "Pausoz pauso, auzoz auzo". Nagusien arloko batzarra. Jubiladuenean.

**URRI BIGARRENAK 10
IGORRE**

19:30ean batzarra. Aurrekontu parte-hartzaileak, "Pausoz pauso, auzoz auzo". Andrak batzarra Kultur Etxean.

**URRI BIGARRENAK 11
IGORRE**

20:00etan, Uxue Alberdi eta Ainhoa

Agirreazaldegiren eskutik, "Bertsolaritza: begirada feminista bat". Kultur Etxean.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, hilaren 13ra arte urtekerea. Canfranc. Moleta (2.572 m.). Pala de Ip (2.779 m.). Somport. Pic de Benou (2.267 m.) Pico de los Monjes (2.347 m.).

**URRI BIGARRENAK 12
ARANTZAZU**

San Fausto jaiak. 17:00etan, Ugel eta Tiragoma

Txapelketearen finala. 20:00etan, herri afaria frontoian.

AREATZA

11:00etan, 12:00etan, 17:00etan eta 18:00etan, Areatzako uribildutik bisita gidatuak.

DIMA

08:00etan Sisetan mendi martxea eta BTT martxea. Plazan. Oinezko ibilbide luzeak 37 kilometro eta laburrak 21 km. BTT martxearen urtekerea 09:30ean plazatik. 36 km.

IGORRE

22:00etan, zinea *La mejor oferta* Lasarte



Aretoan.

ZEANURI

10:00etan, Zeanuriko kofradietatik ibilbidea. Urtekerea Zeanuriko plazatik.

**URRI BIGARRENAK 13
AREATZA**

11:00etan, 12:00etan, 17:00etan eta 18:00etan, Areatzako uribildutik bisita gidatuak.

IGORRE

09:30etik 14:00etara, Garbeko Azokea.

10:00etan, Oskar Garro lagun taldeak antolatuta, I. Duetloi Herrikoia. Eskoletan.

17:00etan, umeentzako zinea *Monstruos University*. 19:30ean, zinea *La mejor oferta*. Lasarte Aretoan.

**URRI BIGARRENAK 14
IGORRE**

18:00etatik 20:30era, eta abenduaren 2ra arte astelehenetan, jentaurrean berba egiteko tekniken gaineko tailerra neska gazteentzat.

Hipo eta Tomaxen Papo Pupa Igorreko Kultur Etxean

Uda sasoi pasau eta gero Kultur Etxean umeentzako zuzeneko ikuskizun batez gozatzeko aukerea izango da hilaren 11n arrastiko 17:30ean.

Hipo eta Tomaxen *Papo Pupa* lanean Hipotolomeok bizikletan doala istripua izan dau. Tomax-ek semaforoaren (mesaforoa Hiporentzat) funtzionamentua esplika eta gero, medikuaren konsultara eroango dau osatu dagien; baina "Patxi Xiringa" sendagilea ez da agertuko. Orduan Tomax mediku bihurtu eta Hipo "sendatzen" saiatuko da. Umore, joko, magia, kanta eta jolas bitartez sortutako ordubeteko emonaldia dibertigarria da. Prezioa 4 euro, bazkideak 3 eta laguntzaileak 1,5 euro.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**SALGAI**

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

SALGAI

Tabernarako kafeterea eta molinilloa salgai. Gaggia Nera markakoa. 600 eurotan. 619 728 188 (Unai).

TXAKURKUMEAK SALGAI

Hile biko 4 txakurkume saltzean dodaz. Artzai txakurrak dira. 25 eurotan zure esku! Telefonoa 616 440 185.

MODULOAK SALGAI

Moduloa saltzean da. 3 logela. Santillana del Mar kanpinean kokatuta. 16.000€. Telefonoa 606 772 896 (Mari Cruz).

PISUA SALGAI ZEANURIN

90 metro karratu ditu. Hiru logela. PVCko bentana barriak. Barrikuntzak behar dauz baina sartu daiteke biziten. 98.000 euro. Interesdunak deitu 618 557 363 telefonora.

ETXEA ALOKATZEKO EDO**SALTEAKO**

Urkuzun (Igorre). Kamarea, bizilekua, kortea eta garajea daukaz. Margari 94 673 61 80.

DANERIK**DESBROZADOREA BEHAR DOGU**

Baten batek erabili ban badauka ipini kontaktuan mesedez. Bardin da zaharra bada. Eider: 685 70 71 76 orekatuarde@gmail.com.

AREATZAN ETXEA ALOKAIRUAN

180 m² dituan etxe erreformau bat alokairuan, erosteko aukereagaz. Lau solairukoa: 3 logela, 2 bainugela, txokoa, kamarea eta terrazeta. 656 716 560.

BIZIKLETEA EROSI GURA DOT

Bizikleta estatiko plegablea erosi gura dot. 615 783 915.

INGELESEZKO ESKOLAK

Ingelesezko eskola partikularrak emoten dodaz Bedian eta Lemoan. Telefonoa 637 754 981.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Gerra mundial Z* filmarako.

Karbele Beobide (Zeanuri)
Gorka Intxaurre (Zeanuri)



2 2102ko Gorbeia Suzien mendi-lasterketako kamiseteta.

Axular Kultur Elkartea (Igorre)
Sara Gutierrez (Areatza)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Konsonante bat. Gai izan.
2.- Errepetiduta, kontuz. Lasaitasun egoerea. 3.- Albaniako dirua. Gehiegi.
4.- Bokala. Kitu. 5.- Kanpoan. Persona izenordaina. 6.- Natura. Bostehun erromatar. 7.- Austro-asiar familiako hizkuntzetako bat. Dima udalerriko auzoa. 8.- Zati. India. 9.- Makailoa. Bokala.

GOITIK BEHERA

1.- Kuartua. BEGUTKO hitz-kurutzatuaren egilea. 2.- Hizki izena. Zigor. 3.- Konsonante bat. Lauoinka. 4.- Oinarrizko lau odol taldeetako bat. Letra bat. "Hodei" berbeak dauka. Libraren laburdura. 5.- Jauregi. Lehenengo bokala. 6.- Amaiera. Parea. 7.- Huts. Guztia.



Topau zazpi harribixiren izenak.

A	S	E	D	U	R	O	L	I	A
R	A	A	S	E	K	R	U	T	K
D	I	Z	A	M	A	N	K	O	R
E	T	O	L	I	G	U	R	A	I
G	S	A	M	A	L	O	S	K	A
O	A	M	A	T	I	S	T	A	N
B	G	R	E	K	O	P	E	A	R
L	A	D	U	R	O	N	E	O	Z
O	T	X	I	A	A	U	D	R	O
R	A	T	S	E	D	L	U	I	A
E	M	A	I	D	A	Z	D	F	E
G	E	R	K	A	N	I	Z	A	R
O	Z	T	I	J	O	L	A	Z	O
K	T	O	P	A	Z	I	O	A	J
I	S	T	A	K	O	L	A	Z	U

**A
K
I
M
I
K
O**

Igor
M
e
n
i
k
a



Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kaltetuek, herrikoia

- Arratia BHI**
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre
- Ikastola Arratia HI**
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
- Zubialde HI**
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI**
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre
- Areatzako Herri Eskola**
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI**
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Hour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Baxilengoak, Hezkuntza zikloak

Kendall Languages

- A, B eta C perfil linguistikoaren lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Elexalde 4 behe · 48.140 Igoerre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com

MAITE ETXEBARRIA ZULUAGA

"Ezinbestekoa da boluntarioen beharra Gorbeia Suzien aurrera aterateko"

Maite Etxebarria Suzien Mendi Klubeko lehendakaria da. Igaz egin zan Gorbeia Suzien mendi lasterketearen lehenengo edizinoa eta emoitzak ikusita duda barik bigarrena egiteari ekin eutsien berak eta taldekoak. Aurtengoa Euskal Herriko Txapelketea izango da, eta hilaren 19an ospatuko da Zeanurin. Zitarik garrantzitsuenak zapatuan izan arren taldeak hiru eguneko egitarau oparoa antolatu dau. Berbaldiak, erakusketak, postuak, erromeria, zozketak, batukadea... egongo dirala kontatu deutso BEGURI Etxebarriak. Etxebarriak, Zeanuriko lasterketea edo martxea egitera animatu gura dauz arratiarrak, eta osterantzean astegoiaren pasa polit bat egitera.

**Irati Urien****Zelan sortu zan Gorbeia Suzien?**

Mendiagaitik daukagun afizinoa eta Gorbeia gaitik daukagun sentimenduak batuten gaituen taldea gara. Gehienok Zeanurikoak gara, baina Arratiako inguruko herrietako partaideak be badagoz. Hori dala eta mendi lasterketa bat antolatutea idea polita izan eitekela otu jakun. Kirola eta natura modu jasangarri baten lotuteko aukerea zala ikusi genduan. Beharrea hasi ginan eta proiektua aurrera aterateko lortu zan igaz, Euskal Kopako seigarren eta azken proba izan zan geurea.

Aurten bigarrenez, eta Euskal Herriko Txapelketea gainera.

Igaz, lehenengo edizinoa izateko, arrakasta handia euki eban probeak. Espero genduan jente kopurua etortea lortu genduan, modu horretan Gorbeiarako beste bide batzuk erakutsiz. Jentearengana helduteko hainbat bitarteko erabili genduzan; gure webgunea, sare sozialak, bideo promozional bat be egin genduan, eta egunean berean Eitb-ko 'Zu Kirolari' eta 'Bisitaria' saioetakoak egon ziran. Punta-puntako korrikalariak euki genduzan: Oihana Kortazar, Ionut Zinca, Miguel Caballero, Raul Garcia Castan, Agusti Roc, David Lopez... Gainera, ez ziran martxea eta lasterketea bakarrik egin. Astegoiaren osoko egitarau interesgarria euki genduan. Esan behar dot holako ekintza baten atzean sekulako beharra dagoala, eta igazko lana ondo egin genduan.

Gauzak holan, aurten Euskal Herriko Txapelketea antolatuteko aukerea izan dogu Euskal Mendizale Federazioari holan eskatuta.

Aukera bi dagoz: karrera eta martxea. Bakotxa apur bat azalduerik?

Batetik, lasterketeak 29km ditu, 2000m desnibel positibogaz. Zeanuriko plazan hasiko da, bidean besteak beste San Justo, Gorbeia tontorra, Mairulegorretako kobea eta Zenigortatik pasau behar dira, eta amaituteko barriro Zeanuriko plazara heldu. Bestalde, martxan ibilbide bi egongo dira. Luzeak lasterketearen bide bardina eukiko dau; eta laburra 22km-koa izango da 1400m desnibel positibogaz. Bigarren hau ez da Gorbeia tontorretik pasauko, Aldaminapetik baino eta gero Zenigortan egiten dau bat besteagaz. Umeak be martxea egiteko aukerea eukiko dabe: 8km. ko ibilbidea.

Programan osterantzeko ekintzak be egongo dirala aitatu dozu. Zeintzuk?

Urri bigarrenaren 17an, egunean hasiko dogu egitaraua. Areatzako AKKB eta Hesperiaokak batera antolatuta "Nutrizinoa eta kirola" gaiaren inguruko mahai-ingurua egongo da Areatzako Udal Areatan. Bertan egongo dira Athleticeko medikua dan Josean Lekue arratiarra, Kepa Lizarraga medikua eta kirolari zein entrenatzailea dan Jokin Lizeaga. Barikuan, urri bigarrenaren 18, dorsal banaketea egingo da Zeanuriko frontoian, 19:00etan.

Ondo-etorria eta ibilbidearen aurkezpena egingo dau Aitor Elduaien gero. Ostean, Iker eta Eneko Pou anaiak "20 urte mendi bertikalean" ikus-entzunezkoa aurkeztuko dabe. 19a, zapatua izango da egun handia. Lasterketea eta martxeaz gainera egunean zehar umeentzako puzgariak, rokodromoa, bazkaria, slackline erakusketak, bigarren eskuko azokea, Aiko taldeagaz erromeria, BTKDA batukada taldea... egongo dira.

Izen handiko korrikalariak etorri ziran igaz. Beste horrenbeste aurten?

Bai. Aurten be igaz irabazleak izan ziran Oihana Kortazar eta Ionut Zinca etorriko dira. Baita Espainiako Kopa irabazi dauan Leire Agirrezabala, Silvia Serafini italiarra, Nuria Picas, Migel Caballero, Aritz Egea, Tofol Castanyer, Zigor Iturrieta, Javi Olabarria, Hassan Ait Chaou, Zaid Ait Malek eta abar.

Zelan doa izen emotea?

Lehenengo edizinoan mendi lasterketen munduan hasibariak ginanez akats batzuk egin genduzan, eta aurten holakorik ez pasetako bai lasterketarako eta bai martxarako parte hartzaileen gehienezko kopurua ipintea ebatzi dogu; holan, Gorbeia eta bere inguruak zainduz. 475 korrikalari eta beste 475 ibiltarik parte hartu ahal izango dabe. Korrikalariak webgunearen bitartez bakarrik emon ahal izango dabe izena, urri bigarrenaren 16aren gaueko hamabietara arte. Ibiltariak be webgunean emon behar dabe izena, eta kopurua beteten ez bada egun horretan Zeanurin.

Momentu honetan 327 korrikalari emon dabe izena, eta 78 ibiltarik. Konziente gara gehienak azken momentura arte izena emoteko etxoten dabela. Eskertuko geunke osteran martxea egiteko asmoa daukanak ahalbait arinen emotea izena; alde batetik merkeagoa dalako, eta beste aldetik antolakuntzakoontzat lagungaria dalako egunean berean parte hartzaile kopurua zein izango dan jakiteko.

Sari potoloak egongo dira, ezta?

Bai. Absolutuetan zortzigarren postura arte emongo dira sariak. Beteranoak eta promesak be sariak eukiko dabez. Lehenengo andrazko arratiarrak eta gizonetakoak be bai. Horretatik aparte igaz espektazino handia egon zan proposatu zan errekorragaitik (2h 30'), eta aurten be eronka hori ipini dogu baina 2h 20'ko denporan. Erroka horretako irabazleak 200 euroko saria eukiko dau. Aitatu gura dot aurten pilo bat material zozketatuko dala bestelako sorpresa batzuen artean.

Lantaldea eta herritarren beharra edo boluntarioena beharrezkoak dira hiru egun horreek posible izateko. Zelan antolatuten dozu?

Antolakuntzan hamar bat persona gagoz eta aspaldidanik astero batuten gara bakotxaren beharrik egunean erroteko. Halanda be, gure lana azken hile bi honeetatik ia egunerokoa da; e-mailak erantzun, telefono deiak... hainbeste

dira lotu beharreko ardurak! Taldeko whatsapp-a daukagu eta sutan erabilten dogu egunean berrehun mezu baino gehiagogaz. Bestalde, lasterketea eta martxea baino egun batzuk lehenagotik hasita, herriko eta Arratiako boluntarioak asko lagundu euskuen igaz, guztira 175 bat izango ziran. Danetariko lana egin eben: anoaguneetan, bazkaria prestatzen, txosnan, dorsalak banatzen... Benetan lagungaria eta ezinbestekoa da euren lana guretzako. Batzuk goizeko 05:00etatik beharrea hasi eta arrastiko 17:00etan bardin segitzen eben. Aurten badakit babes bardina edo handiagoa jasoko doguna eta taldearen izenean eskerrak emoten deutesdaz.

Aurten be bideoa egin dozu, etxeok egindakoa. 2300 bisita daukaz honezkeroko. Seinale ona?

Bai, erantzun oso ona euki dau, jenteari gustau egin jako. Bideo hau beste adibide bat da herriko edo Arratiakoak beti dagozala lagunduteko prest erakusteko, eta benetan zeozter sentitan dogunean aurrera erroteko gai garala. Igazko bideoan Gorbeia bi modu desbardinatara zelan bizi leiten erakutsi gura genduan, artzairen eta korrikalariaren ikuspuntutik. Aurtengoa osteran igazko anekdota polit bat gogorarazoz, izan be lasterketeari hasikerea adarra joaz emon geuntsan, "Sentitu Gorbeia deidiarra" mezuagaz abiatutako bideoa egin dogu, tartean Gorbeia hogeita hamar boluntariotik gora joateari esker.



Euskara praktikoa

Arratiako Kubulu AEK euskaltegia



Agirre lehendakaria 4, Igorre

94 631 56 57 arratia@aek.org



Maila eta ordutegi guztiak.

Titulu ofizialak.

C2/4. maila martxan. Apuntatu zaituzte.